

2020KO EKAINAREN 6ko EZ-OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeiko ekainaren seian.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Jule Aranburu Mariezkurrena.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Aitor de Astobiza Uriarte.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Miren Arantza Oiarbide Perez.
Iñaki Zabalo Echezarreta

IDAZKARIA:

Idoia Arévalo Benito.

BATZARRA: Ez-Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Eguerdiko ordu biak eta hogeita bost.

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta hogei.

Alkatetzako gaiak

1.- Segura-Zerain-Mutiloako idazkaritza- elkarte lanpostua behin-behineko izaeraz hornitzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarrien aldaketa.

Otsailaren 19ko Ohiko Osoko Bilkuran, Segura, Zerain eta Mutiloako idazkaritza elkarte lanpostua behin-behineko izaeraz hornitzeko prozesua arautuko duten oinarriak onartu ziren, prozesua martxan jartzeaz gain.

Halere, ikasgaien artean ez zegoen kontuhartzaitzari dagokion gairik, idazkari profilari zegozkion gaiak baizik. Kontuhartzaitzak lanpostuan duen garrantzia kontutan harturik, beharrezkoa ikusten da hari dagozkion gaiak ere txertatzea.

Hori dela eta, oinarrietan honako gai hauek txertatzea proposatzen da:

19. gaia. Sektore publikoaren aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna.
Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

Otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

20. gaia. Gipuzkoako toki ogasunen baliabide ekonomikoak.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea: IX. titulua.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoa.

21. gaia. Udal zergak.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua): Izaera eta zerga-egitatea; salbuespenak; subjektu pasiboa; zerga-oinarria; kuota, sortzapena eta zergaldia.

Ekonomia jardueren gaineko Zerga (apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea): Izaera eta zerga-egitatea; salbuespenak; subjektu pasiboa; zerga-kuota; zergaldia eta sortzapena.

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga (uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua): Izaera eta zerga-egitatea; salbuespenak eta hobariak; subjektu pasiboa; kuota; zergaldia eta sortzapena.

Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga (uztailaren 5eko 15/1989 Foru Araua): Izaera eta zerga-egitatea; subjektu pasiboak; zerga-oinarria, kuota eta sortzapena; hobariak.

Hiri lurren Balioaren Gehikuntzen gaineko Zerga (uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua): Izaera eta zerga-egitatea; salbuespenak; subjektu pasiboa; zerga-oinarria eta kuota; sortzapena.

Martxoaren 28ko 2/2017 Foru Dekretu-Araua, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena.

22. gaia. Zerga bilketako jarduketak eta prozedura.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergena: III. Tituluko V. kapitulua.

23. gaia. Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuak.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzkoa.

24. gaia. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa.

Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretua.

25. gaia. Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua.

Abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena: 1. eranskina (Gipuzkoako Toki Erakundeen Kontabilitateari buruzko jarraibidea); 2. eranskina (Toki entitateen aurrekontu egitura); eta 3. eranskina (Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra toki-administrazioari egokituta).

Bestalde, eta kontutan izanda Segura, Zerain eta Mutiloak idazkaritza lanpostua partekatzeko duten elkartea desegite prozesuan dagoenez, komenigarria ikusten da egitate hau oinarritan aipatzea. Hori dela eta, ondoren adierazitako paragrafoa oinarrietan txertatzea proposatzen da:

“ Une honetan, Segura-Zerain-Mutiloa idazkaritza elkartearen desegite prozesua martxan dago eta ondorioz, hautapen prozesu hontatik eratorritako lan-poltsatik eta aipatu desegite prozesua bukatu ondoren, pertsona bat Segurako Udaleko idazkari kontu-hartzaile lanposturako izendatua izango da eta, beste pertsona bat, Zerain-Mutiloa eta hirugarren batek osatutako hirugarren mailako idazkaritza elkarterako. “

Gaia aski eztabaidatu ondoren, udal-kideek aho-batez erabakitzen dute aipatu bi proposamenak onartzea.

2.- 3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena

Jarraian faktura eta diru-laguntza hauek onesten dira aho-batez:

1	Aizpuru izeneko mendirako hobekuntza GFA.	5.357,88
---	---	----------

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da eguerdiko ordu bi t'erdia direnean.